

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN INGURUMEN POLITIKA

Ingurumenaren babesak leku nabarmena du Urola Kostako Udal Elkartearen helburuetan, izan ere, mankomunitate gisa ditugun eskumen eta helburuei ingurumena babesteko eta garapen eredu jasangarriak sustatzeko konpromisoak gehitzen zaizkie.

Helburu hori lortzeko, Udal Elkarteko aginte organoek nahiz langileek Ingurumena babesteko jarraibide eta helburuak landu ditugu. Udal Elkartearen ingurumen politika honek hiru arlo hartzen ditu bere baitan:

Hondakinen prebentzioa eta kudeaketa

Hondakinen prebentzioaren aldeko eta ingurumena babestearen aldeko konpromisoa berresten eta agerrarazten dugu, garapen eredu jasangarria ipar gisa hartuta.

- Prebentzioa lehenetsuzko helburutzat hartzen dugu, gizarte osoaren ikuspegi partekatutik begiratuta. Horrenbestez, bat egiten dugu hondakinen prebentzioaren arloko europar zuzentzauek ezarritako helburu eta politika orokorrek.
- Udalek emandako eskumeneren haritik, eskualdean hondakinen prebentzioa sustatzeko eta hondakinak era egoki eta jasangarrian gaika bildu eta kudeatzeko ezinbesteko konpromisoa hartzen dugu, herritarrok hondakinak sailkatzeko dugun bete beharrak asetuko dituen zerbitzu publiko eta eraginkorren bidez.
- Hondakinak sortzearen inguruko prebentzio programak ezarriko ditugu eta lagundu eta babestu egingo ditugu hondakinak murriztu, berrerabili, birziklatu eta konposta egitearen emaitzak hobetuko dituzten esperientziak.
- Ingurumeneko informazio eta sentiberatze ekintzak gauzatuko ditugu eskualdean, gure esparruan sustatzeko arduraz kontsumitzea, hondakinak egoki kudeatzea eta, oro har, garapen eredu jasangarriak.
- Eskualdeko nahiz eskualdeaz gaindiko herritar eta eragileen (udalak, hezkuntza zentroak, enpresak, elkarteak...) lankidetzak sustatuko dugu helburu horiek guztiak lortzeko.

Zaborteziaren kudeaketa

Urtetako zaborteziaren kudeaketari dagokionez, araubidea betetzeko eta eskura dauden baliabide eta teknika egokienak erabiltzeko konpromisoa hartzen dugu, instalazio horren ingurumen eragina murrizteko.

- Konpromisoa hartzen dugu behar diren baliabideak erabiltzeko (diru, giza baliabide eta bitarteko teknikoak) zaborteziak zigilatze nahiz itxi ondoko zaintza epealdian, ingurumen araubideak ezarritako eran.
- Zaborteziak egoki kudeatzeko mantentze eta zaintza lanen plangintzak (eguratsera isurtzen diren gasen emisioen neurketak, lixibatuen eta uren analitikak, soinuaren kontrolak...) antolatu eta garatuko ditugu, Ingurumen Baimen Integratuaren arabera, eta ingurumen organoen jarraibide eta ikuskapenak beteko ditugu.
- Konpromisoa hartzen dugu, halaber, araubideak ezarritakoa betez, zaborteziaren eremua berreskuratzeko eta gisa bereko instalaziorik ez sustatzeko.

Ingurumenaren babesa Udal Elkartearen jardun orotan

- Konpromisoa hartzen dugu Udal Elkartearen egoitzetan eta jardunean ingurumena babesteko neurriak hartzeko, hala nola: eraikinen energia eraginkortasuna hobetzea, hondakinak prebenitzea eta birziklatzea, arduraz kontsumitzea, produktu eta hornidurak eskuratzekoan ingurumen irizpideak kontuan hartzea eta ingurumena babesteko jarrera eta portaerak sustatzea.
- Konpromisoa hartzen dugu maiztasunez neurri horiek guztiak berrikusteko eta hobetzeko ekintzak burutzeko.

Arlo horietan eragina duten ingurumen araubideek ezarritako eskakizun eta baldintzak bete beharreko gutxieneko baldintza gisa hartzen ditugu eta konpromisoa hartzen dugu haratago joateko.

Udal Elkarteko aginte organoetako kideok bat egiten dugu ingurumena babesteko politika honekin eta konpromisoa hartzen dugu berau garatzeko eta etengabe hobetzeko baliabideak eskaintzeko (antolamendu arlokoak, baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta bitarteko teknikoak).

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

2016-02-11